



FUNTSEZKO JARDUERAK

ANOTHER LIVE enpresaren balio-proposamena sortu eta funtzionamendua ondo joateko, hainbat jarduera funtsezkoak dira, eta horien artean lehentasunak ezarri behar dira.

Lehenik eta behin, plataforma digitalaren garapena eta mantentzea da jarduera garrantzitsua. Ezinbestekoa da webgunea edo aplikazioa erabiltzeko erraza, segurua eta fidagarria izatea. Hor sartzen dira objektuak igotzeko sistema, ordainketen kudeaketa eta salmenta bakoitzean GKEetara (Gobernuz Kanpoko Erakundea) bideratuko den portzentajearen kalkuluak. Jarduera honen alderdi teknikoa kanpoko enpresa baten esku utzi daiteke, baina erabiltzaile-esperientziaren diseinua eta balio sozialaren integrazioa ezin dira kanpoan utzi, enpresaren nortasunaren parte direlako.

Bigarren funtsezko jarduera GKEekin harremanen kudeaketa eta gardentasuna da. Another Live-ren balio bereizgarria inpaktu soziala denez, ezinbestekoa da GKEekin harreman zuzena izatea. Erabiltzaileek jakin behar dute beren salmentek edo erosketek benetako eragina dutela. Jarduera hau ezin da kanpoko enpresen esku utzi, zuzenean lotuta baitago proiektuaren sinesgarritasunarekin eta balioekin.

Hirugarrenik, bezeroen ezagutza eta komunitatearen eraikuntza jarduera giltzarria da. Plataformaren arrakasta erabiltzaileen parte-hartze aktiboan oinarritzen da, eta horretarako beharrezkoa da haien beharrak, motibazioak eta ohiturak ezagutzea. Komunitate sentimendua sortzea, balio soziala komunikatzea eta erabiltzaileen iritziak kontuan hartzea funtsezko ekintzak dira. Marketin digitaleko kanpainak (publizitatea adibidez) edo sare sozialen kudeaketa kanpoan utzi daitezke, baina komunitatearen estrategia enpresak berak definitu behar ditu.

Azkenik, kudeaketa ekonomikoa eta plangintza ere ezinbesteko jarduerak dira proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko. Diru-sarrerak, gastuak eta GKEetara



bideratutako portzentajea modu orekatuan kudeatu behar dira, epe luzera proiektua bideragarria izan dadin. Jarduera honen alderdi teknikoak, kanpoko profesionalen esku utzi daitezke, baina erabaki estrategikoak eta lehentasunen definizioa barne-mailan egin behar dira.